

# BERRIAK ETA GAI LABURRAK

## GURE ILLAK

Aurtengo otsailaren 17'an Madril'en il zitzaigun, ustekabeen, José Vallejo jauna, Euskaltzaindiaren urgazlea.

Sevilla'n jaio 1896'garren urtean, Madril'go Unibersitateko irakasle zan aspaldidanik, latin-filologia saillean, eta bere irakas-lanaren entzutea ezta berealakoan galduko. Asko baitira gidari paregabe onek latin-joskeraren mal-karretan barrena nekerik gabe eramari zituenak.

Iberikoari buruz ere jardun zuen, eta ez aurrerapenik gabe. Eta iberikoarekin batean agitz gogoko izan zituen beti inguru oetako antzifiaiko izkuntza guztiak.

Baita euskera ere. Neronek dakit ori ifiorik baiño obeto. Agertu nintzaionean ezagutzen eninduelarik, euskal-gaietan saiatzeko asmoa nuela eta besterik gabe, ateak bereala zabaldu zizkidan eta al zezakean guztian lagundu azkenera arte.

Zeruan gerta dedilla gizon prestu, irakasle argi eta adiskide eskuzabal au.

— 0 —

Udazkenean, au ere ustekabeen, Henri Gavel jauna galdu dugu, Tolosa'ko Unibersitateko irakasle izana eta leengo gizaldiko euskalari garaietan bizirik geneuzkan gutxietakoa. Oraindik orain ikusia genduen, Euskaltzaindiak Bayona'n eratu zituen batzarretan, beti bezain argi eta erne, urteak gora-beera Euskerari eta euskaldunoi aspaldidanik eskelfi zigun maitasunak azken-azkeneraifio iraun du ain merezi onez ohorezko euskaltzain izendatua izan zan euskalari onengan.

Romanista zan lanbidez eta gaztelania eta kaskoia dira geienbat aztertu zituen izkuntzak. Sail onetan egin zituen lanen artean eztitut bi besterik aipatuko: *Essai sur l'évolution de la prononciation du castillan depuis le XI<sup>ve</sup> siècle*, Paris'en 1920, tesis-liburua, eta Justin Larrebat, *Poésies gasconnes*. Nouvelle édition annotée avec... une étude sur le gascon de Bayonne par H. Gavel.

Euskerari buruz, berriz, or dago bere *Eléments de phonétique basque* bikaiña (1921), oraindik ere ifiorik ikuskatu gabe ezin utzi dezakean liburua gal orretan

argitasunik nai badu. Grammaire basque eder bat ere asi zuen: zoritzarrez etzan leen zatia besterik agertu eta Lacombe'rekin egiten ari zan bigarrenaren puska bat. Onako beste au euskal-literaturai dagokio: Bereterrets[s tilde-duna]en khantoria (La Chanson de Berteretch), Bayona'n 1924. Eta ezin konta-ala dira euskerari eskeñil dizkion lan laburrak: igazko Via Domitia'n bazetorren bat. Begi eriek etzuten arlotik baztertu.

Irakasle azkar eta jakintsu onek bazuen beste alde bat, ezagutu duten guztiek dakitenez: neker arkituko dugu gizon oberik, apalagorik eta atsegina-gorik. Edozeñil laguntzeko prest, ondo baiño obeto artzen zituen beti gazteagoak eta ezjakina-goak eta etzuen ifior arbulatu naiz orretarako biderik eman. Emen ez ezik, Tolosa'n erein zuen azia ere eztago euskerarentzat osoro galdua.

Goian bego.

L. M.

### LAGUN-IZENAK: GABON ETA SANTURUN

Gerardo Lz. de Guereñu'k aldizkari ontan eman duen Voces alavesas lan jakingarrian, (Euskera III-1958, 173-367) izengoitzi bezela jartzen ditu jende-izen bi: GABON eta SANTURUN: María Gabón (Amárita, 1594), Santurun Mz. de Arbulu (Lubiano, 1708), Santorum de Arvi (Ondategui, 1760).

Gabon egunean edo gabonetan jaioten ziran aurreri jartzen zioten Gabon izena («Natividad del Señora» erderaz) eta Santurun, Santorum, Sanduru, Domu-Santuz, Domu-Santuetan jaioten ziranai.

Ixurtza'n (Bizk.), jaiotzetako liburuan: María Gabon de Sologuren Rementeria (24-XII-1698), (ikusi H. V. E.: Gabón, antropónimo euskérico, BRSVAP aldizkarian, XV, 1969, 211-212). Santuru: Iruñe'an, Sanduru (1366, Rolde, Arch. Gen. Navarra); Deustu'n: Santuru de Vengoechea (1690: J. de Luzuriaga: «Paraninfo celeste», 8). Auek blok L. Mitxelena eta A. Irigaray'k jartzen dituzte Nombres vascos de persona lanean («Actes et Mémoires du Cinquième Congrès International de Sciences Onomastiques», T.º II, Salamanca, 1958). Ixurtzan: Joan Santorum de Garay y Bilbatua (6-XI-1958), jaiotz-lib. Iyorreta'n (Bizk.) Santuruena izena daukan baserri bat ba-dago.

Euskal lagun-izenak buruz ikusi: A. LUCHAIRE: Sur les noms propres basques contenus dans quelques documents pyrénéens des XIe., XIIe. et XIIIe. siècles, «Revue de Linguistique» XIV, 150—...; F. DEL VALLE LERSUNDI: Una forma del femenino y el valor de la letra CH como diminutivo en los nombres de los guipuzcoanos de los siglos XV y XVI, RIEV, XXIV, 176—..., eta El valor de la letra CH como diminutivo en los nombres de los vascongados de los siglos XV y XVI, RIEV, XXV, 192—...; J. DE URQUIJO: Nombres vascos, RIEV, V, 56-57; A. IRIGARAY: Euskal-izenak, «Argia»-n, 458'gn. zkn. (2-II-1930), Les prénoms basques, «Gure Herria» XIV, 479—..., Contribución a la onomástica vasca, RIEV, XXIV, 314—...; J. M.ª LACARRA: Onomástica vasca del siglo XIII, RIEV, XXI, 247—...; eta beste batzuk.

N. A. G.